*Manifiesto conjunto de Gesto por la Paz y Elkarri*

# *Sobre la Violencia de Persecución*

*Los movimientos sociales Gesto por la Paz y Elkarri queremos hacer pública una declaración conjunta de denuncia de la violencia de persecución y de solidaridad con todas las personas afectadas por la misma. Ambas organizaciones representamos trayectorias y formas de trabajo diferentes pero tenemos una voluntad de cooperación que se asienta en un compromiso compartido: la defensa del derecho a la vida y del respeto de todos los derechos humanos.*

*No es ésta la primera vez en que desarrollamos actuaciones conjuntas. En anteriores ocasiones, hemos cooperado para denunciar la política penitenciaria (04-06-97), para celebrar el 50 aniversario de la Declaración de los Derechos Humanos en Bilbao (09-12-98), para impulsar una campaña de difusión de una cultura de conciliación (19-10-99) o para desarrollar distintas iniciativas conjuntas en el ámbito local. En esta ocasión volvemos a unir nuestra voz para pronunciarnos sobre la inaceptable realidad que padecen las personas amenazadas.*

***Descripción de la situación que denunciamos***

*• La violencia de persecución afecta a miles de personas en nuestro país. Son personas amenazadas por ETA que se ven obligadas a vivir con escolta por pertenecer a determinados colectivos o porque expresan públicamente sus ideas o su compromiso político.*

*• La amenaza es una forma de violencia que señala, persigue y pretende aislar a conciudadanos nuestros. La amenaza genera miedo y angustia. Quien está amenazado tiene restringida su libertad y debe modificar sus relaciones con el entorno para intentar proteger su vida.*

*• La violencia de persecución atenta, no sólo contra las personas a las que va dirigida directamente y sus familiares y entorno más cercano, sino también contra las bases de la convivencia democrática en una sociedad plural y compleja como la nuestra.*

***Dos consideraciones***

*A. Un deber cívico. Denunciar clara y públicamente esta forma de violencia es un deber cívico por su gravedad y porque quiebra un conjunto de principios con los que estamos comprometidos:*

*-El respeto a la vida. Todas las personas compartimos una misma condición humana que nos hace ser iguales en dignidad. Nadie tiene derecho a disponer, atentar o amenazar contra la vida de otras personas.*

*-La igualdad. Principio que reconoce a todas las personas capacidad para los mismos derechos. La amenaza viola la igualdad de condiciones para ejercer los derechos civiles, políticos y democráticos.*

*-El pluralismo. La diversidad de ideas políticas, sentimientos de pertenencia nacional, identidades culturales o proyectos estratégicos es una realidad que nos constituye como sociedad y su respeto, defensa y garantía es un principio democrático básico. La violencia de persecución agrede y manipula esta riqueza de nuestra sociedad.*

*-La libertad. Todas las personas tenemos derecho a sostener y propagar nuestras propias ideas, siempre que éstas estén comprometidas con los derechos humanos, así como a expresar nuestro compromiso político. La violencia de persecución es un atentado directo contra la opción política, la libertad de conciencia y de pensamiento de las personas y colectivos amenazados y, en consecuencia, un atentado contra la libertad de toda la sociedad.*

*B. Imperativo de humanidad. Hacer frente a esta realidad es también un imperativo de humanidad porque el efecto más directo y real de la violencia de persecución es el sufrimiento de las personas amenazadas y de sus familiares. Este sufrimiento nos interpela como seres humanos y nos moviliza en diferentes direcciones:*

*-Cercanía. La amenaza provoca soledad y aislamiento por lo que consideramos necesario rescatar del silencio este sufrimiento y hacer presente nuestra cercanía.*

*-Solidaridad. La amenaza genera desamparo por lo que nuestro compromiso es ejercer y reclamar una solidaridad activa hacia quienes la sufren. Quienes no estamos directamente amenazados tenemos, al margen de cuál sea nuestra ideología, un especial deber de solidaridad.*

*-Comunicación. La amenaza puede llegar a crear en sus víctimas desconfianza o distancia hacia el resto de la sociedad, por ello nuestro compromiso se dirigirá a ayudarles a que recuperen la confianza en esta sociedad y a reforzar el diálogo entre diferentes.*

*-Convivencia. La amenaza ataca a la libertad y a la convivencia en esta sociedad plural, por ello Elkarri y Gesto por la Paz hacen pública su voluntad de fortalecer las bases de una convivencia en paz, basada en la defensa de los derechos humanos para todos y todas y del pluralismo.*

*En función de todo lo anterior adoptamos los siguientes acuerdos:*

*1. Cada organización trabajará por sensibilizar a la ciudadanía sobre la grave vulneración de derechos que padecen las personas amenazadas y declarar públicamente nuestra voluntad de responder activamente ante esta injusticia.*

*2. Plasmar este compromiso en el discurso, propuestas y actuaciones de ambas organizaciones y en el desarrollo de iniciativas conjuntas en el ámbito local para reforzar el rechazo de esta violencia y transmitir a sus víctimas un mensaje de solidaridad.*

*3. Ofrecemos nuestro apoyo al Plan por la defensa de los derechos y las libertades, contra la violencia de persecución presentado por el Gobierno Vasco; sin embargo, no deseamos que dicha iniciativa se quede en una simple campaña publicitaria, por lo que solicitamos que, a la mayor brevedad posible, se desarrollen y precisen las propuestas concretas que se deriven del mismo.*

*4. Solicitar a las distintas instituciones que colaboren para garantizar al máximo la seguridad de las personas amenazadas y para crear espacios plurales y unitarios de solidaridad hacia ellas.*

*5. Solicitar a todos los agentes sociales y políticos, así como a la sociedad en general que mantengan actitudes y discursos de denuncia y deslegitimación frente a la violencia de persecución, de solidaridad hacia las personas y colectivos afectados, así como de diálogo y concertación para la convivencia.*

*Junio de 2004*

*Bakearen Aldeko Koordinakundearen eta Elkarriren manifestu bateratua*

# *Jazarpen indarkeriari buruz*

*Bakearen Aldeko Koordinakundea eta Elkarri gizarte mugimenduek adierazpen bateratu bat eman nahi dugu ezagutzera jazarpen indarkeria salatzeko eta berau pairatzen duten pertsona guztiei elkartasuna adierazteko. Bi erakundeen ibilbidea eta lan egiteko modua desberdina da baina gure elkarlanerako borondatea konpartitzen dugun konpromiso batean finkatzen da: bizitza eskubidearen eta giza eskubide guztien errespetuaren defentsa.*

*Hau ez da elkarrekin lan egiten dugun lehen aldia. Aurreko batzuetan, elkarrekin lan egin dugu espetxe-politika salatzeko (97-06-04), Giza Eskubideen Adierazpenaren 50. Urteurrena ospatzeko Bilbon (98-12-09), adiskidetze kultura zabaltzeko kanpaina bat bultzatzeko (99-10-19) edo herri mailan ekimen bateratu desberdinak garatzeko. Oraingo honetan berriz ere bat egingo dugu mehatxatutako pertsonek pairatzen duten errealitate onartezinaren aurrean iritzia emateko.*

***Salatzen dugun egoeraren nondik-norakoa***

*• Jazarpen indarkeria milaka lagunek pairatzen dute gure herrian. ETAk mehatxatutako pertsonak dira, zenbait kolektibotakoak direlako edo jendaurrean euren ideiak edo konpromiso politikoa adierazten dutelako bizkartzainekin bizi behar dute nahitaez.*

*• Mehatxua indarkeria-mota bat da, gure herrikideak seinalatu, jazarri eta isolatu nahi dituen indarkeria-mota. Mehatxuak beldurra eta nahigabea sortzen du. Mehatxatuta dagoenak bere askatasuna murriztuta dauka eta bere inguruarekin harremanak aldatu egin behar ditu bere bizitza babesteko.*

*• Jazarpen indarkeriak, mehatxatutako pertsonen, bere familiaren eta hurbilekoen kontra ez ezik, gurea bezalako gizarte plural eta konplexu batean bizikidetasun demokratikoaren oinarrien kontra ere egiten du.*

***Bi irirtzi***

*A. Gizalegezko betebeharra. Indarkeria mota hau jendaurrean argi salatzea gizalegezko betebeharra da bere larritasunagatik eta gure egiten ditugun printzipio multzo bat apurtzen duelako:*

*-Bizitza errespetatzea. Pertsona guztiek gizatasun baldintza berbera konpartitzen dugu, duintasunean berdinak egiten gaituena. Inork ez dauka eskubiderik beste pertsonen bizitzaz baliatzeko, berauen aurka egiteko edo inor mehatxatzeko.*

*-Berdintasuna. Pertsona guztiei eskubide berberak edukitzeko ahalmena aintzatesten dien printzipioa. Mehatxuak eskubide zibil, politiko eta demokratikoak erabiltzeko baldintzen berdintasuna bortxatzen du.*

*-Aniztasuna. Ideia politikoak, nazio-sentimenduak, kultura identitateak edo proiektu estrategikoak gizarte gisa eratzen gaituzten errealitate hutsak dira eta eurekiko errespetua, defentsa eta bermea oinarrizko printzipio demokratiko bat da. Jazarpen indarkeriak gure gizartearen aberastasun hau astindu eta manipulatu egiten du.*

*-Askatasuna. Pertsona guztiok daukagu gure ideiak edukitzeko eskubidea eta hauek hedatzeko –giza eskubideekin bat baldin badatoz– eta baita gure konpromiso politikoa adierazteko ere. Jazarpen indarkeria mehatxatutako pertsonen nahiz kolektiboen aukera politikoaren eta kontzientzia eta pentsamendu askatasunaren aurkako atentatu zuzena da eta, ondorioz, gure gizartearen askatasunaren aurkako atentatua.*

*B. Gizatasun-agindua. Errealitate honi aurre egitea gizatasun-agindu bat ere bada jazarpen indarkeriaren eragin zuzen eta errealena mehatxatutako pertsonen eta familiartekoen sufrimendua delako. Sufrimendu honek gizabanako gisa interpelatu eta lau haizetara mobilizatzen gaitu:*

*-Hurbiltasuna. Mehatxuak bakartasuna eta isolamendua dakar, horregatik beharrezkoa iruditzen zaigu sufrimendu hau isiltasunetik ateratzea eta gure hurbiltasuna adieraztea.*

*-Elkartasuna. Mehatxuak babesik eza dakar, horregatik gure konpromisoa sufritzen dutenei elkartasuna adieraztea eta eskatzea da. Zuzenean mehatxatuta ez gaudenok, gure ideologia kontuan hartu gabe, elkartasun-betebehar berezia daukagu.*

*-Komunikazioa. Mehatxuak gizartearenganako mesfidantza eta distantzia sor dezake biktimengan. Horregatik, gizartearengan konfiantza berreskuratzen laguntzera eta desberdinen artean elkarrizketa indartzera zuzenduko da gure konpromisoa.*

*-Bizikidetasuna. Mehatxuak gure gizarte anitzean askatasunari eta bizikidetasunari erasotzen die; horregatik, Elkarrik eta Bakearen Aldeko Koordinakundeak bakezko bizikidetasunaren oinarriak indartzeko borondatea adierazten dute, guzti-guztion giza eskubideen eta aniztasunaren defentsan oinarritutako bizikidetasuna, alegia.*

*Aurreko guztia kontuan hartuta ondorengo erabakiak hartu ditugu:*

*1. Erakunde bakoitzak mehatxatutako pertsonek pairatzen duten eskubideen urraketa larriaz herritarrak sentsibilizatzeko eta injustizia honen aurrean erantzuteko borondatea jendaurrean adierazteko lan egingo du.*

*2. Konpromiso hau bi erakundeen diskurtsoan, proposamenetan eta jardueretan eta herri mailako ekimen bateratuetan agerraraziko dugu, indarkeria honen gaitzespena indartzeko eta bere biktimei elkartasun mezua adierazteko.*

*3. Gure babesa agertzen diogu Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako Jazarpen indarkeriaren aurka, eskubideak eta askatasunak defendatzeko Planari; dena den, ekimen hau publizitate-kanpaina soil batean geratzea ez genuke nahi, beraz, lehenbailehen proposamen zehatzak adieraztea eta garatzea eskatzen dugu.*

*4. Erakundeei kolaboratzea eskatzen diegu mehatxatutako pertsonen segurtasuna bermatzeko eta beraienganako elkartasun-eremu anitz eta bateratuak sortzeko.*

*5. Gizarte eta politika eragileei, eta gizarte osoari berari ere, jazarpen indarkeriaren aurrean deslegimizazioaren eta salaketaren aldeko, indarkeria hau pairatzen duten pertsonen eta kolektiboenganako elkartasunaren aldeko eta, azkenik, bizikidetasunerako elkarrizketaren eta hitzarmenaren aldeko jarrerak eta mezuak edukitzea eskatzen diegu.*

*2004ko ekaina*